Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Gotzon Barrenetxea-Arando Azkargorta

Bergara, Gipuzkoa (1923-2012)



Aurkibidea

Biografia



Zubieta kalean jaio zen 1923ko urriaren 6an. Aita Periko "Arandonekoa" zuen, eta ama Damiana Azkargorta, Ipintza baserrikoa. Ohitura zaharrari eutsiz, oraindik ere gurutzeak egiten ditu erramu eta ereinotzarekin, eta bedeinkatu ondoren banatu egiten ditu senide eta ezagunen artean.

Zintak

BER-143

- **Proiektua**: Deba Eskualdeko Ahotsak - Bergara.
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Data**: 2003-12-01
- **Iraupena**: 62 min
- **Euskarria**: MiniDV
- **Kodifikatzailea**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Transkribatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane

BER-144

- **Proiektua**: Deba Eskualdeko Ahotsak - Bergara.
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Data**: 2003-12-01
- **Iraupena**: 60 min
- **Euskarria**: MiniDV
- **Kodifikatzailea**: Alberdi Bilbao, Itziar

BER-145

- **Proiektua**: Deba Eskualdeko Ahotsak - Bergara.
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Data**: 2003-12-11
- **Iraupena**: 39 min
- **Euskarria**: MiniDV

BER-146

- **Proiektua**: Deba Eskualdeko Ahotsak - Bergara.
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Data**: 2003-12-15
- **Iraupena**: 60 min
- **Euskarria**: MiniDV
- **Kodifikatzailea**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Transkribatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane

BER-147

- **Proiektua**: Deba Eskualdeko Ahotsak - Bergara.
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Data**: 2003-12-15
- **Iraupena**: 60 min
- **Euskarria**: MiniDV

Pasarteak

1. Zubieta kalea

- **Erref**: BER-143/004
- **Iraupena**: 0:02:40. **Hasi**: 00:15:30. **Bukatu**: 00:18:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:
Zestoak egiteko prozesua. Abarketagileak. Idiak ere egoten ziren beraien kalean. Anekdota bat idi parea auto batekin.

Transkripzioa
- […]. Hola, behian ipini zestuoi ta “ra-ra-ra” batu ta kruzauaz, hola. Behian ipini zest… hola ipini, holako zeran ipini hola ta gero hola pasauaz “da-da-da-da” jo ta […].
- Hori zestuak…
- Zestuak eitteko.
- … eitteko prozesua. Eta, orduan, zesteruak abarketak be eitten zittuan?
- Astixa zeukanien abarketak, beste lanik ez [zeon] ta. Abarketak eta zestuak eta… Patxi zesteruan aitta ta horrek danok. Ta beste batzuk [horrekin].
- Eta jente askok erosten zittuan zestuak orduan?
- Hoixe, hoixe, biharko! Etxerako ta…
- Eta, gero, esan dozu hemen kale honetan bertan zalditegixa be bazeuala?
- E?
- Idixak-eta egoten ziala hor… zaltei bat edo…?
- Hamentxe, geure aldamenian. Guk etxe zahar bat daukau hortxe —ez dou ezebe eitten, garaje daukau— ta hortxe eukitzen zittuen. Idixak, ekartzen zittuen idixak eta burdixa sartu ta idixak lotu ta…
- Eta ekartzen zittuen idixak… noiz? Plazara zetoz… Ez. Zetara?
- Idixak erenak etxekuak, lanerako idixak.
- Eta bertan gordetzen zittuen?
- Bai, zaltaixa [zeon] hor ta. Burdixandako tokixa ta gero zaltaixa. Ba! [Goizian] goizian jantzi ta lotu ta… [Gero] bedarra jatera gero etara ta… Bedarra jatera etara ta… Hor aurrekaldian orduan errekara bajatzia errezaua zan. Hor aurrekaldeko [zelaixan] etxiak dare ta horra juan ta hor zelaixan bedarra jan ta handik “dinbi-danba” atzera illuntzian etxera. Ta hortaiko baten, nik ez neban entzun, baiña [beste batek ekarritta]. Idixekin zetorren hona, kamiñuan idixak, "dinbi-danba, dinbi-danba", ta kamiñua pasatzerakuan "Eeee" bat geratu ein eban automobillakin, batenbat, noizbait tokauta automobilla: "¡Eh! ¡Usted no sabe dónde anda!", "´¡Tú no sabes nada, tonto, tú! Estas ya saben, éstas viven aquí". idixak kamiñuan "ra!" etorri ta kamiñuan "da!" kruzau ta zaltaira. Ta bestia automobillakin atzetik, zarataka: "¿Dónde va usted?"; "¡Calla tú, no sabes nada! Estas viven aquí, saben dónde viven" harek. Idixak "dinbi-danba, dinbi-danba", baiña...
- Bazekixen...
- Ez zauen semafororik-eta orduan. Hori, hori… […] da hori, e! Idi paria, idi paria zaltaira zuzen. Ta bestia automobillakin kabreauta, jo-ta zarataka.

2. Monagilo Santa Marinako elizan

- **Erref**: BER-143/026
- **Iraupena**: 0:05:41. **Hasi**: 00:55:15. **Bukatu**: 01:00:56
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:
Abadeari meza gertatzen laguntzen zion. Abadeak Santa Marinan.

Transkripzioa
- Zelan hasi ziñan? Lehengunian komentatzen zestazun monagillo jardundakua ziñala zu. Zelan izan zan hasieria edo zelan okurridu jatzun sartzia?
- Ez... Abadiak laguna bihar izeten zeben mezia emoteko ta mezia laguntzeko ta abadiak. Ta monagilluak, mutiko batzuk, ba, [elia] zeoze eman ta jarri... Mezia emoten, lehen mezia emoten zan, baiña monagillua be jantzitta ta abadiei […] jantzi ta liburua alde batetik bestera pasau ta binakerara ardaua bota ta... Ez zan oin bezela hola jarritta. Ez, lehen, e... lehen mezia emotia zan... Introitua ikasi, latiñez introito danak ikasi "introductio, mea culpa..." ikasi ta...
- Eta, orduan, [...] Santa Marinako abadian laguntzaillia, ez? Osea, Santa Mariñan guzti hori? Monagillo...
- Gu Santa Mariñan; hamen, San Pedron.
- Eta orduan zein zan abadia Santa Mariñan?
- Abadia?
- Bai.
- Don Inazio. Maisua, maisua don Inazio zan, don Inazio Aldanondo. Gero don Pedro, don Nemesio... Ta bestia zein zan? Don […], don Nemesio... A! Don Tomas [Ziarreta] [laugarrena]. Lau abade, Santa Mariñan lau abade [erezen]. A! Don Iñigo! Don Iñigo bestia! Don Iñigo. Maisua...
- Ta zu zeiñekin hasi ziñan? Zeiñekin? Laurekin ala...?
- Laurekin.
- Laurekin...
- Lau abade zeren, lau abade.
- Eta laureri lagundu bihar...
- E? Bi monagillo genden eta lau abade. Bakutzak biri lagundu bihar [jakon] egunian. Ta mezak egoten zian goizian seiretakua ta zazpiretan; ta zortziretan ta bederatzittan. Abade batek emoten zeban seiretan ta zazpiretan ta bestiak zortziretan ta bederatzittan. Ta mutiko batek be aste baten seiretan ta zazpiretan ta hurrenguan zortziretan ta bederatzittan. Hurrengo astian bestekaldera. Ta, gero, eskolara, ba, hoixe, lehenengo errekreuan juan bihar, lehenengo berandukuan […]. Baiña seiretako mezia [laguntzen]. Domeketan egoten zan hamarretan meza nausixa; beste mezaik ez zan egoten. Atsaldetan ez zan egoten mezaik, meza atsaldekua gero ipinittakua da. Baiña seiretan mezia laguntzera, e! Badakizu ze […] seiretan? Zuek erretiratzen zaren orduan mezia laguntzera. Ta hiru lagun, hiru lagun, sakristaua ta beste hiru, sakristauan anaiak, hiru anai, mezia entzuten. Ta beste [mutilzahar bat], hiru, hiru edo lau. Baiña pekaturik ez daukanak bihar dabela mezia laguntzia. Harek mezetan hiru-lau lagun haundixak, ni baiño hamabost-hogei urte zaharrauak ta harek... harek ez monagilluak. Bederatzi-hamar urteko monagilluak mezia lagundu bihar.
- Eta, orduan, zelan... Bergaran jente asko ibiltzen zan hor... elizara juaten zan? Erlijiñua zelan bizi zan?
- Ba! Oin baiño gehixao askoatik, baiña —proportziñuan, ezta?— baiña... Hilian, hilian duro bat edo emoten zeben ta haretxekin. Ezebez.. Gero, bataion bat bazeon edo, bataion bat bazeon edo ezkontzan bat bazeon edo propiña bat edo beste egoten zan, baiña...
- Eta zenbat urtekin hasi ziñan monagillo?
- Beatzi urtekin.
- Bederatzi urtekin. Osea, justo komunixua eitteko...
- Bai. Ta gero hamalau urtera arte, lanera sartzeko ordura arte. Bost urte

[ixa], bost urte.
- Eta, esan dozu, erroparen bat eruaten zenduen espeziala zuek?
- Ez, ez. Bueno, bai...
- Mezia emoteko bai...?
- Ze esaten jako horri...? Oin be jazten dabe, ba, zeoze eitteko, holako zer bat goittik behera sartuta...? Jantzitta mezia beti; jantzitta abadia [be] ta [mutikuak] jantzitta beti. Baiña mezia... Altaran mahaixan alde batetik bestera liburua pasau, beste bat, binajerara bota, bajatu... belaunikotzen [zaran] guztian kapia jaso, txiliña jo...
- Eta biharra ze izaten zan elizan bakarrik? Zeuen biharra elizan bakarrik ala gero elizatik kanpora be zeoze ein bihar izaten zenduen?
- Bai, ba! [Esto], bihar bazan elizakua [...] txiliña jo ta elizakuakin edo... beste nunbaitten edo...
- Elizakuak emotera juaten ziñan abadiakin batera?
- Abadiakin batera.
- Eta hori...
- Etxetara be bai ta... Oin ez da juaten, disparatia [brutala].
- Eta zelan izaten zan hori? Abadia juaten zan zeure aurretik ala zu abadian aurretik?
- Abadian aurretik norbera.
- Zu?
- Txiliña [juaz] “trin” ta. [... bidian belaunikotzen zan. Harrixakin, harrixan zerian, hankia belaunikatu], e! Zuk, badakizu? Ondio urte asko ez dala [...]. Gero jendia [...].
- Ta txiliña jotzen bakarrik, errezuren bat eitten edo...?
- Ez, [elian] jo “trin-trin-trin”, handik gerotxuaora “trin-trin-trin”, ba, bagoiezela esaten.
- Eta hori hildakuangana? Eizakuak emotera...
- Gaizki daonan etxera juatia.
- Gaizki daonan etxera.
- Zabalenera akordatzen jata, Karmenen aiztianera ta... Andria arnasarik hartu ezinda ohian ta elizakuakin hola, jo-ta kuarto guztia jo-ta beteta jentez, [zeoze] ikustera juanda. Lehen arnasarik hartu ezinik ta gero jauna emotera hari, azkenengo zera ta... Disparatiak.

3. Euskararen egoera gerra garaian

- **Erref**: BER-144/010
- **Iraupena**: 0:03:50. **Hasi**: 00:24:30. **Bukatu**: 00:28:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:
Euskararen egoera gerra garaian.

4. Hileta-elizkizunekin zerikusia zuten ohitura zaharrak

- **Erref**: BER-146/001
- **Iraupena**: 0:02:55. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:02:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak

Laburpena:
Ohitura zaharrak. Manta jasotzea, urtebetera egiten zen. Hamarretako berezia egiten zuten emakumeek egun horretan. Mezak. Arando tabernan egiten ziren meriendak.

Transkripzioa
- Hamalau hillabete pasautakuan, ba, ya haura jasotzia izeten zan. Ta orduan izeten zan andrena, andren kontua haura, e? Hamarretakua. Hamarretakua emoten zan.
- Hamarretakua, hamaiketakua...
- Edo hamaiketakua edo dana dala. Meza ostian, ze emoten zan nahi dozu esatia?
- Esan! Goguan dakazu?
- Ba, ipintzen zan ardau zurixa eta ranziua. Ranziua esaten jakon, ardau goxua, goxuai ranziua. Harek bixak. Gero ipintzen zien intxaurrak, gaztaia eta opillak. Opillak, holako opil zabal batzuk, ya espezialak eitten zittuen hortarako.
- Eta bizkotxo-zapatillak.
- Eta gero bizkotxo-zapatillak. Bizkotxo-zapatillak, badakizu? Hor egoten dia pegauta, hola —Eibarren ez dao ohitturaik?—, hola, tira batzuk papelak ta, hola, pegauta bizkotxuak; sei bizkotxo-edo bakoitzian. Hemen ohittura haundixa. Ta gero, horrek be bai ipintzen zien. Ta pentseizu zelako hamarretako ederra dan. Haura andrena izeten zan bakarrik.
- Andren ohitturia bakarrik.
- Eta gero, urtia betetzen zanian, ba, aurretik —hamalau hillabete da hori, baiña aurretik—, urtia izeten danian, anibersarixua izeten zan goizeko zazpiretan mezia. Ta gero, emoten zan txokolatia. Baiña txokolatian aurretik, koñak eta anisa ipiñi mahaixan, kopatxo bana, eta gero, panpota esaten jakon hemen. Ez dakit han ohitturaik daon.
- Zer zan hori?
- Ez, oin ez da hemen be ikusten, e? Baiña izeten zien armozutarako panezillo batzuk, baiña espezialak.
- Fotak bai, baiña...
- Bai, fotak.
- Hemen panpotak esaten jako.
- Hemen panpotak esaten jako. Ba, horrek. Ta holako bana ipiñi, eta gero, txokolatia ta [bolauaz urakin].
- Bolaua badakizu zer dan?
- Bai.
- A! Bai? [Bolauaz urakin] txokolatia zerbitzen zan. Ta hori. Horrek, ba, gauza asko. Oseake, taberniak gauza askokin lana eitten zeban. Hor...
- Bai. Oseake, inguruko basarrixetatik be...
- Hamen alderdikuek, e? Beste alderdikuek ez.

5. Arando taberna

- **Erref**: BER-146/002
- **Iraupena**: 0:00:55. **Hasi**: 00:02:55. **Bukatu**: 00:03:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak

Laburpena:
Arando taberna, oso ezaguna Bergaran. "Batzoki txikia" ere esaten zioten.

Transkripzioa
- Tabernia, zeuen tabernia, famosua izango zan, ez, Bergara guztian?
- Bai, epoka baten bai, zegaittik eze zer haundixa zeon, hartu-emona jentiakin ta…
- “Batzoki txikixa” be esaten zotsen.
- “Batzoki txikixa”, lehenengo… Bai, abertzaliak danak juntatzen zian zera.
- Eta zelan da kontu hori?
- […] haretxek izengo zien.
- Pixkat tabernian historixia badakizue? Zeiñek zabaldu zeban edo…?
- Ez. Oseake, gure osabiak hartu zebanian, beste batzuei hartu zotsen, baiña ez dakit harek lehelenguak zien ala… Ez. Baiña Arando gu gara, oseake, bestiek ez zeuken izen hori, e? Arandonekuak.
- Oseake, tabernia…
- Barrenetxea-Arando nola apelidua zan, ba, gero, ba, Arando ta Arando ta…

6. Hileta-elizkizunekin zerikusia zuen ohitura zaharra: ondra-jana

- **Erref**: BER-146/004
- **Iraupena**: 0:02:36. **Hasi**: 00:04:08. **Bukatu**: 00:06:44
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak
- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak

Laburpena:
Arando taberna, jatetxea eta janztetxea zen. Ondra-jana.

7. Hileta-elizkizunekin zerikusia zuen ohitura zaharra

- **Erref**: BER-146/005
- **Iraupena**: 0:01:49. **Hasi**: 00:06:44. **Bukatu**: 00:08:33
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eraikuntza erlijiosoak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak

Laburpena:
Elizako sepulturak. Hileten inguruko ohitura zaharrak.

8. Baserritarrak larunbatean Bergarara plazara

- **Erref**: BER-146/007
- **Iraupena**: 0:01:44. **Hasi**: 00:09:08. **Bukatu**: 00:10:52
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak

Laburpena:
Gizonezkoak feriara joaten zirenean, merienda berezia egiten zuten. Larunbatetan inguruko herrietako baserritar batzuk Bergarara etortzen ziren plazara eta Arando tabernan zerbait jateko ohitura izaten zuten.

9. Gaztetan tabernan lan egindakoak

- **Erref**: BER-146/008
- **Iraupena**: 0:00:45. **Hasi**: 00:10:52. **Bukatu**: 00:11:37
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak

Laburpena:
Arando tabernan lanean jardundakoak gaztetan.

10. Zubieta kalea nolakoa zen

- **Erref**: BER-146/015
- **Iraupena**: 0:04:15. **Hasi**: 00:21:30. **Bukatu**: 00:25:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea

Laburpena:
Zubieta kalea nolakoa zen. Baserritarrek bizitasuna ematen zioten kaleari. Dendak, abarketagileak; etab. Zapatagileak. Lantegiak.

11. Eskola kontuak

- **Erref**: BER-146/019
- **Iraupena**: 0:02:19. **Hasi**: 00:28:33. **Bukatu**: 00:30:52
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak

Laburpena:
Eskolara Cía de Maríara joan ziren. Bertara joan aurretik, Mariñe frontoiko eskolara joan zen.

12. Etxeak eutsi dio euskarari

- **Erref**: BER-146/020
- **Iraupena**: 0:03:10. **Hasi**: 00:30:52. **Bukatu**: 00:34:02
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak

Laburpena:
Cía de Maríako maistrak zeintzuk ziren. Hezkuntza erdaraz izan arren, moja bat joaten zen dotrina euskaraz ematera. Gerra hasi zenean, gero eta ume gutxiago joaten ziren euskarazko dotrina ikastera. Euskara indarra galduz etxeetan. Trantsizio garaia gogorragoa izan zen zentzu horretan.

13. 1930. hamarkadan, euskarazko liburuak hezkuntzan

- **Erref**: BER-146/022
- **Iraupena**: 0:01:18. **Hasi**: 00:34:52. **Bukatu**: 00:36:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Dotrina
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikasgaiak eta ikasmateriala

Laburpena:
Dotrina euskaraz gerra sasoian. Euskarazko liburuak: Xabiertxo, Lutelesti... Fraideetan dotrina erdaraz bakarrik irakasten zuten.

14. Cía de María ikastetxea

- **Erref**: BER-146/025
- **Iraupena**: 0:01:00. **Hasi**: 00:38:16. **Bukatu**: 00:39:16
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak

Laburpena:
Cía de María ikastetxea. Uniformea zelakoa.

15. Eskola kontuak

- **Erref**: BER-146/027
- **Iraupena**: 0:00:42. **Hasi**: 00:40:58. **Bukatu**: 00:41:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak

Laburpena:
Eskola kontuak. 13 urtera arte mojetan ikasten.

16. Bergarako ikastetxeak

- **Erref**: BER-146/028
- **Iraupena**: 0:03:02. **Hasi**: 00:41:40. **Bukatu**: 00:44:42
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:
Cía de María. Ikastetxea zelakoa zen. Klausurako mojak. Komentu zaharra eta berria.

17. Eskolatik irtendakoan, musika

- **Erref**: BER-146/030
- **Iraupena**: 0:02:06. **Hasi**: 00:46:12. **Bukatu**: 00:48:18
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak

Laburpena:
Eskolatik irten eta musika ikastera.

18. Umetako jolasak

- **Erref**: BER-146/032
- **Iraupena**: 0:02:44. **Hasi**: 00:48:48. **Bukatu**: 00:51:32
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:
Umetako jolasak.

19. Errekan jolasean

- **Erref**: BER-146/035
- **Iraupena**: 0:00:48. **Hasi**: 00:52:47. **Bukatu**: 00:53:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekak eta uretako jolasak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:
Umetan errekan jolasean.

Transkripzioa
- Ta, orduan, errekan-eta baiñatzen ziñazien?
- Bai, gutxi, baiña baiñatzen giñan. Mutillak gehixao. E? Zuek bai baiñatzen ziñaten asko, ezta?
- Bai, gu bai.
- Geu be ibiltzen giñan peskan ta…
- Lehenengo hor, kanalian, eta gero hor be […] ikasi igarixan. Hor sartu ta…
- Ta gero Agorrosiñera, ezta?
- Gero Agorrosiñera.
- Gu ez Agarrosiñera. Baiña han bai, ta hor be kanala zeuan, ta kanalian uretan.
- Hor [zeon] presatxo bat, presa txiki bat, ta gero hor kanal bat. Ta, ba…
- Eta baiñatzeko zer erabiltzen zenduen?
- Soiñeko luze bat. Kitto. Edo kuleruekin noizian behin…
- Ez zeuan traje de bañorik orduan!
- Keba!
- Traje de bañua ta gerora.
- Gero. Alkilau eitten zien!
- Dakin noiz erosi giñuzen?
- Zarautzen.
- Zarautzera juateko.

20. Udan hondartzara

- **Erref**: BER-146/036
- **Iraupena**: 0:04:40. **Hasi**: 00:53:35. **Bukatu**: 00:58:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekak eta uretako jolasak

Laburpena:
Bainatzeko erabiltzen zituzten arropak. Zarautzera udan senideen etxera.

Transkripzioa
- Zarautzera juateko. Zarautzen gure aman aizta bat zeon han, ta uda baten esan zoskun: “Etorri zaittezte”. Ta gero, ba…
- Trajiak erosi bihar.
- Erositta juan giñan.
- Ta sonbrero batzuk be bai. Bi sonbrero. Ez dakit zuria ta… Ez jakiñat zeiñena zan, bi sonbrero gris —aittan lutua egongo zan—, grisak zintta beltz batekin. [Zimitzezkua] gris argitxuaua eta illuntxuauakin. Sonbrero harek luzero egon zian gurian.
- Sonbrero oso polittak zien, baiña gure amak zeukan lazo bat ez dakit zelakua ta haura kendu ein [zeban], haura dotoreeixa zala ta.
- Dotoreeixa zalako. “Guri ez jakun tokatzen”, esaten zeban harek. Pobriak,

ba, zorionez. “Guri ez jakun tokatzen”.
- Eta komentau dozu baiñadorak alkilau eitten ziala?
- Alkilau eitten zien, bai.
- Bai. Bueno, Bergaran-ta ez, e?
- Bertan.
- Bergaran-ta ez, baiña plaian alkilau.
- Zarautzera juaten bazara, plaira juaten bazara, kasetan edo nunbaitten.
- Pentseizu. Pentseizu.
- Kasetan edo…
- Ta gurian aman aiztiak esan oskun: “Bueno, alkilau eitten dittue, baiña erosi ein bihar da”. Zegaittik eze… Eske, egixa. Eta orduaintxe erosi giñuzen, honek be bai, nik be bai.
- Ta Garbiñe be izango zan orduan. Bi sonbrero zien ta, birendako zien.
- Juan giñan, aste baten juan giñan… Zu nerekin juan ziñan? Bai, zu nerekin uste dot.
- Zarautzera?
- Zarautzera. Eta zu Garbiñekin, edo zelan? Bi ta bi juan giñan, bahintzat. Bi juan giñan lehenengo, ta gero beste egun batzuk bestiak.
- Nik, behintzat, kristonak ikusi nittuan hantxe. Bai.
- A! Ni zurekin juango nitzan ta hori Garbiñekin. Honek iges ein plaiatik…
- Kalez kale…
- Kalez kale. Eta gure lehengusuak edo… Bai, gure lehengusuak atzetik honen bille. Honek nahi ez uretara juaterik.
- Eske, sartzen niñuan, heldu ta olatuan sartu. Ha ze gauzia e… Sekula holako estuasunik! Nik Zarautzera juateko eukitzen neban bilddurra!
- Eta zelan gogoratzen dozue lehelengo eguna? Zarautzera juan eta han hondartzia ikusi eta itsasua ta…
- Nik ez dakit. Ni ez naiz akordatzen nobedade haundirik ein zostanik. Ni txikittan juan nitzan, e! Txiki-txikixa nitzan. Aittan lutua zeuan gurian, ta nik aitta ez neban ezautu, oseake… Hiru bat urte edo, [holakoren bat neuzkan]…
- Zuk gehitxuao gogoratuko dozu…
- Nik bai. Nik honek baiño zazpi gehixao, nik hamar bat urte eukiko nittuan.

- Eta goguan dakazu, orduan, itsasua eta olatuak eta…?
- Bai. Ez dakit, ba, nik tamaiño hortako inpresiñorik ein zostan be!
- Neri ez, behintzat.
- Ibili giñan uretan, e! Biharko, gure lehengusuekin-ta uretara juan! Baiña halako bilddurrik pasau nebanik ez.
- Ez, baiña […]
- Harek zu derrigorrian.
- Bai, ba!
- Gero etortzen jakun gure izekua, zeozer hamarretakua ekartzen zoskun. Bestela bazkarixa berandu egongo dala, eta ekartzen zoskun umioi. Bai. Ni horrekin akordatzen naiz.
- Ni ez.
- Eta orduan baiñeruak-eta egoten zian?
- Bai, egoten zien, baiña gu baiñeruekin ez giñan ibiltzen.
- Zuek ya bazekizuen, ez?
- Guk… lehengusuak-eta han tropia ibiltzen giñan.
- Ni ez naiz akordatzen baiñeruekin.
- Baiñeruak bai, baiñeruak egoten zien.
- Eta andrak-eta, zelan juaten zian? Soiñeko luziekin edo ze…?
- Ez, traje de bañua, baiña dana gonia, e?
- Dana gonia, bai. Traje de bañua goniakin.

- Gaiñetik... Oin be ikusten dia banaka batzuk, e?

21. Errekan jolasean

- **Erref**: BER-146/037
- **Iraupena**: 0:01:05. **Hasi**: 00:58:15. **Bukatu**: 00:59:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekak eta uretako jolasak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:
Errekan jolasean. Umetako jolasak.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-10-27

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com